



## IKASTARO OSAGARRIA OSASUN ARLOKO GIZARTE DESBERDINTASUNAK(2. ED )

### INFORMAZIO OROKORRA

---

**IKASTURTEA:** 2022/2023

**ARLOA:** Giza Zientziak

**KREDITUAK:** 3 ECTS kreditu (\*)

**MATRIKULA TASA:** 60 € (Asegurua, 4 €)

**ARDURADUN AKADEMIKOA:** Yolanda GonzálezRábago

### AURKEZPENA

---

Osasunaren Sustapena eta Osasun Komunitarioa gizarte-garapenaren eta -ongizatearen oinarritzko zutabeak dira. Ikastaro hau Osasun eta Osasun Komunitarioa Sustatzeko Masterreko parte da, eta helburua ikasleak osasunaren azterketan sartzea da, ekitatearen ikuspegitik. Osasunaren mugatzaile sozialen esparru batetik, determinatzaile horiek osasunean desberdintasun sozialak zergatik sortzen dituzten aztertuko da, egitura sozialaren, desberdintasun sozialaren eta estratifikazio sozialeko sistemen kontzeptuak eta sortzen dituzten dinamikak ulertuta. Gainera, garrantzi berezia emango zaie osasun-arloko genero-desberdintasunei. Eta, azkenik, osasuneko desberdintasun sozial horiek murrizteko politikak aztertuko dira.

### ZURE BILA GABILTZA

---

Sustapena eta Osasun Komunitarioa gizarte-garapenaren eta -ongizatearen oinarritzko zutabeak dira. Ikastaro hau Osasun eta Osasun Komunitarioa Sustatzeko Masterreko parte da, eta helburua ikasleak osasunaren azterketan sartzea da, ekitatearen ikuspegitik. Osasunaren mugatzaile sozialen esparru batetik, determinatzaile horiek osasunean desberdintasun sozialak zergatik sortzen dituzten aztertuko da, egitura sozialaren, desberdintasun sozialaren eta estratifikazio sozialeko sistemen kontzeptuak eta sortzen dituzten dinamikak ulertuta. Gainera, garrantzi berezia emango zaie osasun-arloko genero-desberdintasunei. Eta, azkenik, osasuneko desberdintasun sozial horiek murrizteko politikak aztertuko dira.



## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Ikastaroak osasunaren sustapenean eta osasun lan komunitarioan oinarritutako lanpostuetan lan egiteko prestakuntza eskaintzen du. Gainera, lantzen diren gaitasunak baliagarriak izan daitezke osasunaren sustapena ardatz ez duten baina osasuna hobetzeko eta osasunean esku hartzeko modua duten lanpostuetan. Besteak beste:

- Osasun sustapeneko teknikariak, administrazio publikoetan dihardutenak (osasun sailak, udalak, diputazioak).
- Osasun komunitarioko teknikariak, osasun erakundeetan dihardutenak.
- Osasunaren edo osasun komunitarioaren sustapeneko teknikariak, gizarte erakundeetakoak edo fundazioetakoak.
- Osasun komunitarioa eta osasunaren sustapena ikertzen duten ikertzaileak, ikerketa erakundeetan edo unibertsitateetan dihardutenak.
- Osasun komunitarioaren eta osasunaren sustapenaren arloko irakasleak.

## BALDINTZAK

---

Osasunaren, gizartearen, hezkuntzaren, komunikazioaren, arkitekturaren, biologiaren, ingurumenaren eta ekonomiaren zientzietako titulazioak, besteak beste.

## IRAKASKUNTZA

---

**HASIERA ETA AMAIERA DATA:** 2022/11/07-tik - 2022/12/31-ra

**EMATEKO TOKIA:** On-line

**HIZKUNTZA:** Gaztelania

## INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

---

**SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA:** Soziologia eta Gizarte-lana Saila

**HELBIDEA:** Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatea. Sarriena z/g 48940 Leioa Bizkaia

**TELEFONOA:** 94 601 5129

**POSTA ELEKTRONIKOA:** [yolanda.gonzalezr@ehu.eus](mailto:yolanda.gonzalezr@ehu.eus)

**WEBGUNEA:** <https://www.ehu.eus/eu/web/graduondokoak/master-promocion-salud-comunitaria>

(\*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.